

8- FUNTSEZKO JARDUERAK:

Gure enpresak ondo funtzionatzeko jarduera batzuk besteak baina garrantzi handiagoa izan behar dute. Jarduera horiek funtsezkoak direla esan genezake gure enpresa barruan.

Funtsezko jardueretako bat, elkarrekin lan egitea da. Azaldu dugun bezala, gure enpresak bi zerbitzu mota eskainiko ditu. Beraz, egin beharreko lana handiagoa da. Lan hau errezteko, elkarren arteko kooperazioa ezinbestekoa da. Zehazki gure idea, lana ondo banatzea eta bakoitzak egin beharreko lana ahalik eta hoberen eta gogotsuen egitea da, arazoak murrizteko eta etekin handiagoak lortzeko.



Bururatzen zaigun beste jarduera garrantzitsuetako bat, jendeak gu ezagutzea da. Enpresa guztiz berri bat sortuko dugunez, bezeroak lortzea da lehen erronka zailenetako bat. Horretarako, inguruko bezero posibleek ezagutu egin behar gaituzte. Bezeroak lortzeko meketing eta publizitate sakona egitea pentsatu dugu. Lehenik, gertuko jendea ereabiliko dugu inguruan gure proiektua ahoz aho zabaltzeko. Bestalde, hainbat aseguru, hilerri eta beterinarioekin harremanetan jarriko gara hildakoak gugana zuzenean bildaltzeko.

Jarduera honekin batera, azkenik gure azken funtsezko jarduera izango genuke, bezeroengan tratu ona izatea. Funeraria Maitek asko zainduko ditu bezeroak, gure lana zabaltzeko. Bezeroek, jende gehiagori enpresa gomendatuko diete eta horrela eskaria igo egingo litzateke. Izan ere, bezero hauei gure zerbitzua eta tratua gusta bazaie gugana berriz etortzeko aukera ere izango dugu.